

Segurtasun neurri zorrotzekin egin da nekazari eta baserritarren azoka

EH Bilduko gobernu taldea kexu azaldu da baserritar eta nekazariak euren produktuen salmenta zuzenerako darabilten azoken kontra Iñigo Urkullu lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzak asteon argitaratu duten dekretuarekin

Azken asteetan bezala, nekazari eta baserritarren azoka egin da zapatuan Zubikoa kiroldegiko kantxa urdinean, herritarren segurtasunarendako beharrezko diren neurriak hartuta: bi metroko gutxieneko distantzia mantendu da momentu oro ekoizleen eta kontsumitzaileen artean, ezin zitezkeen elikagaiak ukitu, herritarrei banaka eskaini zaie zerbitzua, kontsumitzaileek eskuak garbitu beharra izan dute sartu aurretik, berezita izan dira sarrera eta irteera, uneoro kontrolaturik egon da kantxa urdineko pertsona kopurua, ekoizleek maskarilla eta eskularruekin jardun dute... Horri lotuta, EH Bilduko udal gobernu taldeak azaldu du herritarrek zorrotzki bete dituztela segurtasun neurriak, eta, beste behin, eskerrak eman gura izan dizkie horregatik, “erakusten ari diren arduragatik”. Hain zuzen ere, gaurkoan, hamalau ekoizle hartu dute parte azokan eta 360 herritar inguru bertaratu dira.

Besteak beste, gobernu taldeak azaldu du dekretua heldu zenerako azokak atzera bueltarako aukera gutxi zituela. “Jaiegun bezpera izanik, ordurako antolatua genuen gaurko azoka, nekazari eta baserritarrek jaso zuten abisua, prest zituzten euren produktuak. Bertan behera uzteak, prestatutakoaren zati handi bat hondatzea ekarriko luke, besteren artean. Oso kaltegarria litzateke euren arteko, bide zail honetan traba berri bat”, argitu du.

Bide batez, EH Bilduko gobernu taldea kexu azaldu da baserritar eta nekazariak euren produktuen salmenta zuzenerako darabilten azoken kontra Iñigo Urkullu lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzak asteon argitaratu duten dekretuarekin. “Emergentsia egoeran berebiziko garrantzia du kalitatezko elikagaiak herritarren eskura jartzeak, lehen mailako beharra da”, gaineratu du. Eta ez du ulertzen, supermerkatuak eta establezimendu handiak jendez lepo dauden garaiotan, azokako saltzaile txikiei eten bariko oztopoak jarriz Eusko Jaurlaritzak darabilen jarrera. Bide horretan, “garai zail hauetan”, herriko ekoizleen eta saltzaile txikien alde egiten segitzeko konpromisoa berretsi du.

Era berean, gobernu taldea ez dator bat COVID-19ak eragindako emergentsia egoeran Eusko Jaurlaritzak lehen sektorearen kalterako hartu dituen bestelako erabakiekin: “Lehen sektoreko langileei, eta, ogibide ez izan arren, jaki propioak ekoizteko edo hazteko hautua egin duten nekazari zein baserritarrei oztopo ugari jarri zaizkie, animalien eguneroko zaintzarako trabak, ortuko eguneroko lanaren debekua... Guztiz ulergaitzak egiten zaizkigu azken asteetan hartu diren erabakiak”.

Bestetik, gobernu taldeak kezka azaldu du Eusko Jaurlaritzak erakusten ari den alde biko aurpegiagatik: “Urkullu lehendakari ozen azaldu zen beharrezko ez diren jarduerako enpresen hamabost eguneko itxiera agintzen zuen dekretuaren kontra eta haiei irtenbide azkarra emateko lanean jardun zuen, tematuta. Baina ez zuen jarrera bera erakutsi herriko komertzioen eta ostalaritza establezimenduak ixteko erabakia heldu zenean, Eusko Jaurlaritzak ez zien irtenbiderik eskaini. Horiek guztiak ez al dira ehun ekonomikoaren parte? Ohi bezala, zaurgarrienak, zaurgarriago dira orain”.